

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Azaroak 10, 40. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

MAXI-EROSKI

Deba Garaian



JOSEBA



**MODELO
BERRI-BERRIA**

 **MUGARRI**

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorria	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	798777

10 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Las cosas cambian"
- Novedades: "Karate kid II". 10,30etan.
- Helduentzako txontxongiloa: Jordi Bertran, "Antologia". 10,30etan Amaia antzokian.
- Goardiako farmazia: A.M. Morales.

11 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Tres fugitivos"
- Novedades: "Si te dicen que caí". 5,7,30 eta 10,30etan.
- Antzerkia: "Retrato de Dama con Perrito". Adoquin taldearen eskutik. 10,30etan Amaia antzokian.
- Gantzagako jaiak:
 - Meza nagusia Aretxabaletako Koroak abestuta. Eguerdiko 12etan.
 - Dantzaldia, Kepa Zabaleta eta Motrikorekin. Gaueko 11etan.
- Goardiako farmazia: A. Azkoaga. Ferrerías.

12 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Tres fugitivos"
- Novedades: "Karate Kid III". 5,7,30 eta 10,30etan.
- Gantzagako jaiak:
 - Zikloturisten lasterketa. Eguerdiko 12etan.
 - Aramaioko dantzariak. Eguerdiko 12etan.
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

13 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Tres fugitivos". Novedades: "Karate Kid III" 7,30etan.
- Afrikako Herriei buruzko aste kulturala:
 - Hitzaldia: "El Sahara". Sahara-ko lagunak bilbotar kolektiboaren eskutik. 7etan Monterron hitzaldi aretoan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

14 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Tres fugitivos"
- Hitzaldia: "Elikagai bateraezina" Lurdes Goenagaren eskutik. 3etan AEDn.
- Bideo emanaldia: "Afrikako herriak". 7etan Monterronen.
- Goardiako farmazia: J.A. Irizar. Erguin.

15 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: ez dago sesiorik.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Santa Marina.

16 OSTEGUNA

- Zinea: Alai: "Grita libertad"
- Hitzaldia: "El apartheid la linea del frente". Bartzelonako Afrikar ikerketa Zentruaren eskutik.
- Bideo-klub: "The last Movie". 8,30etan Amaia antzokian.
- Goardiako farmazia: A. Azkoaga. Ferrerías.

IKASTAROAK

Familia eta gizarte Heziketarako Zentruan hilabete honetan zehar, Eskulan tekniko eta Otargintza, Zeramika eta Buztingintza ikastaroak izango dira arratsaldero.

Lanbada ikastaroa, Manbo Iek antolatuta. Klaseak goizez burutuko dira hilaren 11, 12, 18 eta 19an. Izen ematea Kiroldagiko bulegoetan.

Igeriketa eta Squash ikastaroa Gazte-Zerbitzuak antolatuta. Igeriketa ikastaroa azaroaren 13an hasi eta abenduaren 22arte iraungo du. Squash ikastaroak, azaroaren 13an hasi eta astero ikastaro bat. Plaza mugatuak.

IHDUNALDIK

Kontsumoari buruzko ihardunaldia azaroaren 20tik 24era.

BEKAK

"Sebero Altube" beka deialdia, Arrasateko euskara aztertzeq. Interesatuak Euskara Zerbitzura zuzendu.

Ekonomiarientzako beka. Unibertsitate arteko "Erasmus" Akordioaren barruan, beka bat dago (hiru hilabeterako) ekonomilari gazte batentzako, Italian. Interesatuak deitu lehen bait lehen gauz. Tfnoa: 94-4605925. Goio Etxebarria.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebehea.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune Biteri

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Mikel Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila Galañena, Blanka Jauregi, Klariop Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3, bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 4.500 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Topikoak

Topikoak topiko ditugu eta ez beharrez- egia hutsak. Topikoa plagio izan daiteke; eta "Obabakoak" irakurri ondoren jakin badakigu plagioaren bitartez, gehienez jota, sasi aintzara iritsiko garena eta, inoiz ez, bakarrik sortzaileei dagokien ospera. Zailena, sarri, muga bereiztean dago, hots, berezko sorkuntzako produktua eta kopiatuaren arteko marraz jabetzean.

Topikoak ohitura direnean lege bihurtzen zaizkigu eta ez dago zer eginik haien kontrako ihardunketan. Herri jakintzan hain errotuta egon daitezke, non sasi-belar horien suntsidura helburu ezina gerta daitekeen. Topikoak gizartearen maila guztietan loratzen dira. Gaitz horretatik ez gara inor libratzen, gaixotasunaren adarrak norabide guztietara zabal daitezkeelarik.

Ematera goazen eritzia topikoan oinarrituko dela dakigunean, "topikora erortzeko arriskurik dudan arren" formula erabiltzen dugu, adierazi behar duguna ohituraren indarrak abalatuta dagoela azpimarratu nahi bagenu bezala. Beraz, solaskideak gureari ez diola bainarik ipiniko aseguratzen ari gara. Ez da taktika txarra, ez, era horretaz elka-

rriketaren lema gureago egiten baitugu. Aurreko formula horrek konpromezu neketsuetatik atera gaitu, onik, gure planteamenduetan erdi kilikolo ibili garen une askotan. Aipaturiko esaera horretaz baliatzea parkagarri izan daiteke, gure estrategietarako gizonok ditugun mainetako bat besterik ez baita. Ordea, ulertzen ez dudana eta defenda ezin dezakedana topikoaren erabilera izkutua da.

Camilo Jose Celarekin, egun lau zutabetara egindako elkarrizketa batetik:

— Gure akatsik haundiena bekaizkeria da.

— ?

— Ez, hipokresia anglosaxoia da.

— ?

— Zikoitzak, berriz, frantziarrak.

Gaur bertan M. Unamunoren "Abel Sanchez" liburuan ondoko lerroaldi honetaz dut topo egin:

"Salvador de Madariagak, -ingelesak frantziarrak eta espainiarrak konparatzean- ingelesari hipokresia leporatzen dio, frantziarrari zikoizkeria eta espainiarrari, berriz, bekaizkeria".

Topiko hutsak, nonnahi.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda


Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

Erdiko kale 79 19 37



Ferrerías 79 87 62

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

Aretxabaletako idazkaria dela eta

Zuzendari jauna:

Duela hilabete bat gutxi gora behera, irailaren 29an, zuk zuzentzen duzun astekari horren 34. alean, “Izen Propioak” deritzon sailaren barnean Edurne Iturbe-ri buruz egiten duzun deskribapenean, “Edurnek euskara polito egiten du” esanez amaitzen duzu.

Eskutitz honen helburua idazkari lanpostua bete zenean gertatutakoa azaltzea besterik ez da, jende askok, agian, zuk horien artean, aurrez jakin arren.

Lanpostu horretarako prestaturiko arautegian, eta 7. puntuan adierazten zen bezala, Euskara froga eliminagarria izango zen (ahozkoa eta idatzia), froga honen azterketa Udal Euskaltegiaren eta Euskara Zerbitzuko Teknikariaren eskuetan geratu zelarik. Hauen ustez, aipaturiko Edurnek ez zituen ez ahozkoa, ez eta idatzia gainditu, eta epaimahaiak inolako kasurik egin gabe aurrez izendatutako aztertzaileen erabakiari paso egin zion.

Hau zela eta, HBko zinegotziak errekurso formal bat aurkeztu genuen Udaletxean beste taldeek bertan behera bota zutelarik.

Gure alkateak astekariaren esanez baliatuz, zinismo hutsez epaimahaiak zoriondu zituen, erabaki zuzena eta egokia hartzeagatik, eta

horrela azaltzen da Udaletxean, 1.989ko Urriaren 2an izandako bilerearen Aktan.

Jakin izan dugunez aztertzaileek ere beren protestak bidali zituzten, bai Udaletxera, eta baita Foru Aldundira ere, baina ez dute momentuz erantzunik jaso.

Era berean, argi eta garbi azaldu nahi dugu ez dugula ezertxo egungo idazkariaren aurka, eta horrela jakin erazi genion berari gurekin eginiko bilera batetan.

Beraz, ikus dezakezu “polito” horrek zer nolako eragina izan dezakeen, baina guk ez diegu konfiantza ukatuko aztertzaileei, ez genuen orduan egin, eta ez dugu orain ere egingo, nahiz eta astekariak beste aldera jo.

Besterik gabe, helburu berberagatik burukatuko dugulakoan, hau da, euskararen alde, agurtzen zaitugu.

*Aretxabaletako HBko Zinegotzi
Taldea*

Urak dakarrena urak daroa

Pentsatu ere ez dut nahi, zuzendari jauna, gure inguru lehorrak lau egunez busti dituen euri bedeinkatuak zenbat azido eta zikinkeria kimiko ez ote duen ekarri zeru kutsatuetatik behera. Euripean dantza egin nahi duenak har dezala guardasola, zer gerta ere.

J. Urepel




Aldaketak izan ditugu Arrasate Presseko administrazio sailean. Bi hilabetez gurekin lanean aritu ondoren, **Ruth Otaduy** San Biator ikastolara joan da. **Josune Biteri**, 22, Bergaran jaiotako mondragoetarra da gure administrari berria. Eskerrik beroenak Ruthi orain arte egindako lanagatik eta ongi etorririk itxaropentsuena Josuneri!

Zer deritzozu ehizari?



Mertxe Arana
(etxeoandrea)

Beno, ondo ondo ez dut ikusten baina ehiztariak ditut etxean eta...



Gregorio Palacios
(langilea)

Berdin dit, ez dut ez aldeko ez kontrako eritzirik.



Miguel Bartolozzi
(ikaslea)

Gaizki deritzot, ez dut atsegin animalia edota txoririk hi! dezaten.



Itxaro Leibar
(gizarte laguntzailea)


Gaizki ikusten dut, animaliek beren kasa aritu behar dute. Gainera edozein animalia edota txori hiltzen dute.

LENIZ

AUTO ESKOLA

ARRASATE TA ESKORIAMATZA.n

TEORIKARAKO



PRAKTIKARAKO



ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errebala
Tfnoa: 79 12 32

SAMEGO
GARBIKETAK

Alfonso X. Jakintsua, 5
Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebiosa, Adeslas

(Muface) eta partikularrak

Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

“Kanpoan dabilta ganaduak, oso gustora eguzki epeletan, baina pasiada ederrak eman eta gero, negurako gordeta dagoen janaria eman behar, ez baitago eguzkitik bizitzerik. Orain kanpotik jirau behar jeneroa, gutxi eta garesti... eta orain euria egiteak ez luke ezer aldatuko. (...) Leku askotan ez ganadu, ez etxekoentzako urik eta ia ia ura daukatenak eta ez daukatenen artean gerra zibila piztua, benetako konfliktu sozialak sortuz”.

(Maite Aristegi EHNEko abokatu bergararrak “Eguna” astekarian)

“Nik txapelketa honetatik espero dudan sorpresa zerau da; molde berrian bertsoan egiten duten gazteek erakutsi dezaketen indarra. (...) Bi moldeak menderatzen dituzten bertsolari apartak horiek alde batera utzita, Egaña, Sarasua, Sorozabal eta Eguzkitze jotzen ditut nik molde berriko bertsolari onenak bezala eta horiek eman ditzaketen sorpresen zai nago. Tartean neure ikaslerik ere badela kontutan hartuz, normala ere bada, sorpresa horren zai egotea”.

(Patxi Goikolea, “Egin” egunkarian)

“Azken aldaketa arkitektonikoen, Estatuko herririk modernoekin pareka daitekeen fisionomia ematen diote Arrasateri. Harrigarria da baita bertan ikusten den ibilgailu pila eta ez nolana hikoak gainera.

Zerbitzu arloan ordea, ez dator bat aipaturiko aurreakuntza horiekin. Hotelik ez du, eta hosteleritza urria, hiru baino ez bait ditu, hauetariko bat erdialdetik urruti xamar geratu delarik.

Arrasaten ez dago diskotekarik eta dantzarako pista daukaten pub parek, asteburuetan soilik irekitzen dituzte. Bukatzeko esan ez dagoela ez jafetxe ez kafetegi kategoriakorik ere”.

(GEO aldizkarian)

Zer balantze egiten duzu azken urtean AEDk egingakoak?

Balantzea positiboa dela esango nuke. Positiboa bai, baina aldi berean kritikoa: egiten ari garenak eta makinatxo bat gehiago egin beharko ditugulako gure hizkuntza aurrera ateratzeko.



AEDk bi eginkizun nagusi ditu: herrikideei euskarazko eskaintza kultural iraunkorra eskaintzea eta euskararen aldeko presioa egitea. Bi eginkizun hauetan aurrera egiteko eramaten dugun iharduera ezberdinak 4 lan-sailtan banatu ditugu.

- Kultur iharduera: Literatur Lehiaketak, Hitzaldiak, Emakume Taldea, Liburu azoka,...
- Sentsibilizazio iharduera: “Euskalan” taldeak, “Salaketa-Txaloketa” saila, Autobusen antolaketa, tonbola...
- Euskarazko komunikabideak: Arrasate Press astekaria.
- Haurrentzako ekintzak.

Bestalde, argi dugu gure lanak, geroz eta gehiago, biderkatzailea izan behar duela. Arrasateko biztanle eta Entitate askok teoriarik euskararen aldeko duten jarrera, eguneroko bizitzan ere horrela izatea lortu behar dugu denon artean. Eta bukatzeko, garrantzitsuak diren pare bat. Batetik Udalarekin, uztailean, sinatutako akordioa oso garrantzitsutzat jotzen dugu. Bestetik AEDk, iazkoaz 6 urte bete ditu, baieztatu dezaket Arrasaten lortu dugula euskara eta euskal kultura bultzatzeko egitura iraunkorra izatea. Beraz, lerro hauek irakurri dituzun euskaltzale horrek, AEDn atek zabalik ditugulako, eman zuk ere zeurea!

J. Luis Arejolaleiba (AEDko dinamizatzailea)

Gorosti jatetxea

OTURUNTZAK
AGURRAK

NEGOZIOTARAKO OTORDUAK

IREKI BERRIA

Arlma zurl 2, Tfnoa: 79 20 02 ARRASATE

KIROLDEGI JATETXEA

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA
Musakola Auzoa. 79 82 31

ARRASATE
PRESS

astero zuekin

ARRASATEKO EROSKI koop. ELK-aren ASANBLADA INFORMATZAILEA

Tokia: ALAI ZINEMA

Ordua: ARRATSALDEKO 7etan

Gai-zerrenda: « KONTSUMO-IHARDUERARI BURUZKO TXOSTENA
« DENDA TXIKIEI BURUZKO TXOSTEN EKONOMIKOA
« MUSAKOLAKO MAXIARI BURUZKO TXOSTENA
« EROSKI Koop. ELK-aren TXOSTENA
« GALDE-ERREGUAK

Parte hartzaileen artean zozketa egingo da

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 89

AZKEN LAURDENAK

LAUDION


Azaroaren 12an, igandea
Lamuza polikiroldegian

Goizeko 11,30etan

*Mañukorta
Elgetzu
Juan M^a Narbaiza
Altzalei
Olalde
Jose Mari Lertxundi
Xalbador II
Ernest Alkat*

Arrasaldeko 5etan

*Txomin Ezponda
Millan Telleria
Loidisaletxe II
Imanol Lazkano
Ireneo Ajuria
Juan M^a Areitio
Moises Enbeita
Manolo Arozena*





Gure zerbitzuak:

- OFFSET
- KATALOGO INDUSTRIALAK
- PUBLIZITATERAKO INPRIMAKIAK
- FOILETOAK
- FOTOKONPOSIZIOA
- LIBURUAK
- KARTELAK
- ALDIZKARIAK
- GAINAZALAK
- TARJETAK

**DEBA GARAIKO
INPRIMATEGIA**

Zubillaga industrialdea, z/g 20560 OÑATI Tfnoa: 78 33 09

prentsaren begia

OSTIRALA 3

CORREO: "Hirigintz planeamenduarekin zerikusia duten tramiteak gaur arratsaldeko Udal plenoan".

DEIA: "Jubilatuena omenez programa zabala".

DV: "Gaurko plenoan hirigintz gaiak".

EGIN: "Bihar jubilatuena jaia ospatuko da Aramaion".

LARUNBATA 4

CORREO: "Arrasaten hiri-lur kontribuzioa borondatez ordaintzeko epea hil honen 24ean amaituko".

DEIA: "Maestras de Tallin koruaren kontzertua Amaian".

DV: "OHOk 3.200 ikasleentzako kontsumo-tailerrak".

EGIN: "Gasen obren bigarren faserako baimena emanda".

IGANDEA 5

CORREO: "Arrasaten bizi diren gazteen %80ak edari alkoholikoak kontsumitu".

DV: "Ferialeko pilotaleku eta Iturripeko kiroldegirako Foru Aldundiari subentzio-eskaria".

EGIN: "Tabernariak ez datoz bat ordenantza erregulatzailerriarekin".

ASTEARTEA 7

CORREO: "Arrasaten gas naturala banatzeko sarearen bigarren faseko obrak egiteko Udal baimena emanda".

DEIA: "Eroski merkatal zentru berriaren inaugurazioa".

DV: "Eskubaloiko Arrasate Kirolak (Usurbilen aurka 17-20), Federazio txapelketako finalista".

EGIN: "Iturripe eta Ferialeko proiektuetarako subentzioa eskatuko".

ASTEAZKENA 8

CORREO: "Deba Garaia ur-partzuergoa izango denaren estatutueta, emango diren aldaketen zain".

DEIA: "Azken plenoan etxebizitzak eraikitzeko proiektuari bultzada".

DV: "Rugby-zelaia Garagartzan eta Arrasateko Telebistaren egoitza Ospitale zaharrean".

EGIN: "San Andrei buruzko azterlanaren lehenengo fasea amaituta".

OSTEGUNA 9

CORREO: "Udal-bulegoak Udaletxera itzultzeak Arrasateko lokal publikoak izatea handituko du".

DEIA: "John Huston zuzendariaren pelikula bat proiektatuko Amaian".

DV: "50 milioi baino gehiago Musakolako Kiroldegia birmoldatzeko bigarren faserako".

EGIN: "32 milioi kiroldegia birmoldatzeko bigarren faserako".

Usteak uste...

Euskarari dagokionez, mugimendu berezia somatzen da Mondragoan.

Orain urte batzuk AED sortu zen, hainbat euskaltzaleren kezak bideratu nahian. Berehala beste herri batzuentzako eredu bihurtu zen. Iaz aldizkari hau plazaratu zen eta gauza bera.

Udaletxean ere pauso sendoak eman dira bertako bizitza administratiboa euskalduntzeko bidean. Erabakiak euskaraz edo erdaraz hartzen dira, ez bietan. Diktamen eta bestelakoak euskaraz zein gaztelaniaz hartzen dira. Egunero hizkuntza biak erabiltzen dira beraz. Horregatik, hartu beharreko teknikariak ere aipatu hizkuntzetan trebatuak egon behar direla eritzirik, azterketak modu horretara moldatu dira, hautagaiek beren lana hizkuntza bietan egiteko gai direla erakuts dezaten. Arrasateko Udalbatzak aho batez horrela erabakita.

Ematen du Tirapuri sistema honek ez diola graziarik egiten eta Udalean hartu diren azken hiru lanpostuak inpugnatu egin ditu. Arrasateko udalbatzaren erantzuna sendoa izan da: aho batez lehen erabakitakoari eustea ebatzi dute. Determinazio eredugarria, bai horixe.

Azken udal plenoan, bestalde, harrigarria izan zen ikustea nola ezein partiduk ez zuela berba erdirik esan urriaren 29an taberna baten kontra jaurtitako tiroei buruz. Inork ez zuen ezer gaitsetzi, argibiderik eskatu edo askotan gertatu ohi den bezala bere jarrera azaldu horrelako ekintzaren aurrean. Harrigarria. *Joxe Aranzabal*

VE ECUADOR

Kontzesifno 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



ERAÑA

AHOLKULARITZA

**OROTARAKO
ASEGURUAK**

Kontzesifno kalea 4, behe
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

“Adokin” antzerki taldea

Larunbatean, Amaia antzokian, gaueko 10,30etan

“Adokin” antzerki taldea Cordobakoa dugu, eta antzezle hauek osatzen dute: Mariló Puerta, Juan Martínez, Jose Javier Pérez eta Ernesto Aguirre (Aipatu behar azken bi hauek, Jose Javier eta Ernesto, Cordoban Arte ikasketak egiten ari diren bi arrasatear direla).

Zuzendaria Paco García. “Adokin” 1988ko abenduan jaio zen, Cordobako arte dramatikoko eskolan, ikasleek “La cantante calva” muntaia prestatu zutenean.

Emaitzarekin gustora, aurrera segitzea erabaki zuten. Ordutik beste obra batzuk ere antzeztu dituzte: “El triciclo”, “Escrito en negro”, “Mimo en el cole”, eta larunbatean



Arrasatera ekarriko duten “Retrato de una dama con perrito” ere.

Zentzugabekoaren antzerkia bultzatzen dute, eta hori bai, barrea-ri inoiz uko egin gabe.

■ “The last movie”

Kultur Batzordeak azarorako prestatu dituen zine emanaldiekin segituz, datorren ostegunean, 16an, Dennis Hopper zuzendariaren “The last movie” filmea ikusi ahal izango dugu.

Pelikula honetan bi kultura ezberdinen arteko gatazka aurkezten da. Gertakizunak Peruko herriska ttipi batean kokatzen dira; han aurkituko ditugu alde batetik herriko biztanleak (beren ohitura zaharrez inguraturik), eta bestetik, pelikula bat filmatzeko asmoz herrira hurbildu den iparamerikar taldea. Maitasuna, gorrotoa, indarkeria... guztiak ere bi munduren arteko iskanbila erakutsiz.

Antzezleak: Dennis Hopper, Stella García, Samuel Fuller, Daniel Ades... eta emanaldia, Amaia antzokian arratsaldeko 8,30etan



Azaroaren 13tik 19ra, Afrikako herriek buruzko kultur astea antolatu du Kultura Batzordeak.

13an hitzaldia: 7etan, Monterronen. ‘Saharako lagunak’ bilbotar kolektiboak “El sahara” gaiari buruz.

14ean bideo emanaldia: 7etan, Monterronen.

15ean hitzaldia: 7etan, Monterronen. Bartzelonako Afrikar ikerketa zentruak “El Apartheid, la linea del frente” gaiari buruz.

17an bideo emanaldia: 7etan, Monterronen.

Horretaz aparte, astean zehar erakusketa egongo da Monterron erakusketa aretoan.



NUTRISAN

Nutrizio-osasun eta kirol-medikuntzako zentrua
Telleria Dra., Serrano Dra., Elbusto Dra.

Gizeneria, zelulitisa, kolesterola, azido urikoa, diabetea, hipertentsioa...

Kirolaren egoera fisikoaren balorazioa.

Lehiaketa-aurre eta osteko eta entrenamendu eta entrenamenduko garaiko dietak

KONPUTAGAILUZ PERTSONALIZATURIKO DIETA

ANALISI KLINIKOAK

ELEKTRO-ESKULTURA

TONIFIKAZIORAKO FUNTZIO ANITZEKO OHEA

Kontsultak: 10etatik 1etara

4etatik 7etara (Aurrez txanda eskatuta)

Kale Aldea 11, behea, 79 65 78 ARRASATE

M ARENAZA
A
Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



Udaletxe zaharrak aurpegi berria

Dagoeneko guztiok jakingo duzue Udaletxe zaharrean berriztapen lanak egiten ari direla. 1988ko urriaren leian hasi, eta badirudi datorren urteko apirilera bukatu nahi dituztela.

Gaur egun bertara hurbilduz gero, bame estruktura guztia hutsik dagoela ikusten da. Lehen fasean pilare zaharrak aldatu eta hormigoi estruktura berria eraiki dute. Orain-

dik ere gauzak hala-nola badaude, Gabonetarako aurrerakada handia egitea espero da.

Proiektua Mikel Garai arkitek-tuak egin du, eta obrak Donostiako "Construcciones Guires S.A."ren esku daude. Enkargatua Jose Mari Eizagirre. Udaletxearen berriz-tapenari 267 milioiko aurrekontua onartu zitzaion bere momentuan.

Bertan kokatuko diren zerbitzuen artean, honako hauek: Artxibo gela,

pleno gela, udaltzaingoa, alkatetza, idazkaritza, zerbitzu teknikoak, zer-bitzu ekonomikoak, harrera serbi-tzua, zerbitzu orokorrak (pertsonal saila), kultura, euskera, Gazteria bat-zordea, 3 edo 4 bilera gela, eta al-derdi politiko bakoitzarentzat utziko den gela.

Argakian, goikaldeko bobeda eu-tziko duten hamabi zutabeak ikusten dira. "Blanco Almerfa" erakoak di-ra. Bakoitzak 1.100 kg-ko pixua du.



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Propietate inmobiliarioaren agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea, 11. Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

AURRERATZEKO

SF

AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

Tabernentzat arautegi berria

Tabernarien ustetan neurri gogorregiak dira

Gai iskanbilatsua jorratu nahi du Arrasateko Udalak; iskanbilatsua, tabernarien elkarteak gogortzat hartu duelako tabernei buruz kaleratu nahi den arautegi berria.

Lau dira bertan aipatzen diren neurriak: Esku aldatzeko orduan bete beharreko arauak, soinugabetzea, lokalen artean errespetatu beharreko distantzia, eta ordutegi berriak, besteak beste.

Tabernak jabez aldatzerakoan, nahitanahiez egokitze lanak egin behar dira berriz zabaldu aurretik. Orain arte, aldatu edota handitzeko orduan bakarrik bete behar zen neurri hori, eta ez taberna saltzerakoan.

Soinugabetzea ere nahiko gai eztabaidatsua litzateke, tabernarien ustetan sistema ondo aplikatu beharra dagoelako lokal barneko zaratak bakarrik kontutan izateko, eta inoiz ez kanpotik datozenak. Gogoratu gaur egun arte isun eta arazo ugari eman direla horren ondorioz.

Taberna arteko distantzia 30 metroan jarri nahi da. Batzuentzat beharrezkoa, besterentzat gehiegizkoa.

Azkenik, ordutegi berriak ere ondo lotu nahi dira. Alde batetik,



Ohitura zaharra dugu tabernatan ibiltzea

Udala eta Eusko Jaurlaritza orain arte ez direlako ados jarri gai horretan; bestetik, Ertzaintzak ere arazoren bat sortu izan duelako, nahiz eta tabernak Udalaren ordutegia bete.

Esan bezala, gai iskanbilatsua Udalarentzat. Badirudi joan zen ostiraleko plenoan landu nahi zituztela goian aipaturiko puntu guztiak, baina azkenean ez zen horrela gertatu. Ikusi egin behar noiz eta nola konpontzen den arazoa

Kiroldegiko lanak

Aurrera darraite Musakolako kiroldegian egiten ari diren berriztapen lanek. Kontuak kontu, asteleheneko Gobernu Batzordean 52.725.936 ptako diru-laguntza ematea erabaki zen. Momentu honetan bigarren faseko lanak egiten ari dira Musakolan, eta laster hasiko dituzte Hall-a berriztatzeko egin beharrekoak.

Gobernu Batzordean ere, San Andreseko Gudarien plaza berrizteko 2.804.480 pta. ematea, eta Musakolako espaloiak konpontzeko beste 2.715.522 pta. onartu zituzten.

Gurutze Gorria

Deba bailaran G.Gk urtean bi aldiz zabaltzen dituen laguntzekin jarraituz, azaroan ere honako hauek banatuko dira: 3.000 litro esne, 1.800 l. olio, 826 pote-haragi, 1.200 gafta-kutxa, 1.164 gaileta-kutxa, etab.

Jaiotzak

Urzelai Arenaza Oihane
Urriaren 20an.
Marzán Altube *Gaizka* 31ean
Zeziaga Goiena *Aitor* 2an
Iglesias Horrillo *Mireia*
Azaroaren 4an

Ezkontzak

Pio Azkarate Garmendia & Marije Arrizabalaga Elorza. Urriaren 13an.
Alberto Axpe Saez & M. Begoña Valle
Molinuevo. 21ean.
Diego Barquero Cabezas & Paula Precioda
Da Gloria Ferreira. 28an

Felipe Arrizabalaga

aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE



TXIKIAK oinetakoak

Otalora Lizentziatua 21, Tfnoa: 79 44 70





Gobernadorearen inpugnazioak

Udalbatzak ahobatez erabaki du prozesuarekin segitzea

Gofi Tirapu, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak euskara dela eta inpugnatu egin ditu Arrasateko Udalak hartu berri dituen hiru lanpostu: apailaria, biltegi zaina eta udaltzainarena.

Azterketen oinarriak erabakitze-ko orduan, Udalbatzak ahobatez onartu zituen eta Gobernadorearen inpugnazioaren berri izan ondoren ere ahobatez erabaki du arestian erabakitakoarekin aurrera egitea.


Gainontzeko udaletan froga guztiak gaztelaniaz egiten dira eta azke-
nean euskarazkoa. Hemen berriz,

bai azterketa teorikoetan zein praktikoetan gai batzuk euskaraz landu behar dira eta beste batzuk gaztelaniaz, euskarazko froga berezirik egin barik. Teknikariak hizkuntza biak jakin behar ditu, Mondragoeko udalaren eguneroko bizitza eta funtzionamenduan ere horrela egiten bait da. Akordioak euskaraz nahiz erdaraz hartzen dira, baina inoiz ez bietara.

Udalbatzak argi ikusten du bide horren beharra. Dagoeneko bi urte daramatza sistema honekin eta hau da jaso duen lehen inpugnazioa.

Emakumearen laguntzarako zerbitzua

Jaio berria da izen horrekin ezagutzen den aldizkaria, Bergarako osasun zentruaren eskutik. Aldizkariaren bidez, gizarte laguntzailearen zerbitzu berria ezagutzera eman nahi dute; eta bide batez, emakumeentzat interesgarri diren gaiez informatu, emakumeentzat laguntza pertsonalagoa eskaini, emakumeen eskubideak aldarrikatu, beraien osasun maila hobetu eta emakumeen partehartze soziala erraztea izango lirateke asmo edo helburuak.



Zero zenbakia



INMOBILIARIA

Kolegiatutako Gestore Inmobiliarioak

Jose Luis Elexpuru
Mertxe Fernandez

**EROSKETA
SALMENTA
ESKU ALDAKETA
ETXE BIZITZAK
LOKALAK
KONTRATUAK**

Gipuzkoa Etorbidea 37, Etxebehea. Tfnoa: 79 28 16



Maxi-Eroski Arrasaten

Bailarako kontsumitzaile berrien beharrei erantzuteko

Asteazken arratsaldean Arrasaten jarri berri duten Maxi-Eroski inauguratuta geratu zen. Maxieroskik 3.200 metroko azalera du eta salmenta-salaren azalera 2.450 metrokoa da.

Inaugurazioan Nikolas Zabaletak, gerentea, Jose Martin Arriolak, salmenta-burua eta Antonio Cancelok, zuzendari nagusia, hitz egin zuten. Maxi-Eroski goizeko 9etatik gaueko 9ak arte egongo da irekita, 180 ibilgailuentzat aparka-

lekua eta kafetegia izango ditu. Eroskik denda hau egiten 400 milioi inbertitu ditu.

Maxi-Eroskiren inaugurazioak aldaketak ekarriko dizkie Arrasateko beste Eroski dendei. Horrela, San Antolingo denda eta Uribe auzoko altzari denda itxi egingo dira. Santa Marina eta Uribe Azoko dendak Erosle bihurtuko dira.

Eroskik doaneko autobus-zerbitzu erregularra ipiniko du Maxiraino Uribe Azoko Erosle berria ireki arte.

ATBk egoitza berria

Hasiere batean Arrasate Telebistako egoitza "Metalúrgica Cerrajera"n kokatzea pentsatu bazen ere, bertako jabeek uko egin diote proiektuari azken orduan.

Gogoratu guztia martxan jartzeko prest zegoela, eta Udalak ere hamahiru milioi t'erdiko aurrekontua onartu zuela bere momentuan.

Orain dena aldatu behar izan dute, eta badirudi etorkizun hurbilean behintzat ATBren behinbehineko egoitza Sebero Altube plazako Ospitale Zaharrean jarriko dutela.

Bitartean, jo eta ke ari dira lanean Udalak urriaren hasieran kontratatu zituen lau telebista teknikariak, artxiborako imajinak grabatzen. Azken zurrumurruek diotenez otsailean hasiko omen dira emititzen. Herrian behintzat, bat baino gehiago emaitzak ikusteko irrika bizian izango dugu.




Ostegunean, 9an inaugurazioa

MAXI EROSKI

Espezialistak ekoizkin freskoetan.

Kafetegia - Jatetxea.

Aste-eneretik arunbatara, egun guzti-bazkaria. Eta kafetegian, edozein orduan zere, erosoago arki zaitelen.



XX. mendea kontsumoaren garaia

Kontsumo tailerrak

Milioi t'erdiko aurrekontuaz, azaroaren 20an hasi

Eusko Jaurlaritzaren kontsumo bulegoak eta Arrasateko Udalak, OHOn dabiltzan 3.200 ikaslerentzat kontsumo tailerrak antolatzea erabaki dute. Aurrerago, jende helduak ere izango du aukera tailer horietan parte hartzeko.

Ikasleak 15-20 pertsonako taldeetan banatuko dira, honako ikasgai hauek eskainiko zaizkielarik: tabakoa eta bere publizitatea, gaztagintza, supermerkatuak, paper erreziklaketa, OMIC-KIUB bulegoa, azterketa konparatiboak, etxeko istripuak dieta eta ordereak.

1.600.000 pta.ko aurrekontua Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren kontu geldituko da, bakoitzak %50a emango duelarik. Tailerren ordutegia, goizetan 9,30etatik 12,30etara, eta arratsaldetan 2,15etatik 5,15etara. Tailer bakoitzak ordu t'erdi iraungo du, eta ikasle guztiak tailer guztietatik pasatuko dira.

Azaroaren 20tik abenduaren 1era antolatuta, ikusi behar nola suertatzen den esperientzia berri hau. Ondo irtezez gero, seguraski sarritan errepikatuko den esperientzia izango dugu.

■ Ostiraleko plenoa

Joan zen ostiraleko plenoan hiri-gintza gaiak jorratu zituzten batez ere. Akordioaren artean, Foru Aldundiari diru-laguntzak eskatzeko lortutako nolabaiteko adostasuna azpimarratu behar. Diru laguntza horiek Iturrieko kiroldedia eta Ferialeko frontoia eraikitzeko lirateke. Gogoratu Iturripen egingo den kiroldegirako aurrekontua 232 milioitan onartu zela bere momentuan, eta Ferialeko frontoiarentzat 335 milioi ere. Udalaren asmoa hau litzateke: Foru Aldundiak datozen bost urteetarako burutu duen proiektuaren barne, eraikuntza hauek kontutuan hartu eta ahal den neurrian bultza ditzala.

■ Rugby zelaia Garagartzan

Iturrieko obrak hastear daudela eta, erantzuna bilatu beharra zegoen Arrasate Kirolak Rugby taldeari gainera zetorkion arazoarentzat. Asteleheneko Gobernu Batzordean landu zuten gai hau, eta azkenean Atxabalpe alboko ortu batzuk prestatzea erabaki du Udalak, gure morroskoek partiduak bertan joki ditzaten.

■ Ikerlan eta Tektronix

Azaroaren 6an sinatu zuten akordioa bi enpresa hauek. Horren arauerara, software CAD-CAM sistemaren barne dagoen "Ikerkad" proiektua komertzializatu eta saltzeko lizentzia ematen dio Ikerlanek Tektronix-i.

...tik larunbatera, 9etatik gaueko 9etara, milia guztia erentzat.

...y, bazterre, enungaiak, e ektratesnak, merkato gaeria no genagatar banaluta, zuk zeure erara eta asai agune nandia beñ zerbitzurik onena eskainiz beñ.



Aparakaleku erosoak.

ARRASATE

MAXI EROSOTASUNA ZURETZAT

Beti eskura, eten gabeko eskaintzak.

Egunero, zure erosketa-oltzara askoz merkeago eta kalitatez beterik. Jirunago lotaren idon barik.

EROSKI

Txandaka

Sintzeridatea gauza ederra da

Beno ba. Nahi al duzue sintzeroa izan nadin? Bale! Arrasate Press honetarako zerbait eskribituko ote nuen eskatuz deitu zidan batek joan den ostegunean. Iritsi da gaua, ikusi dut "Karte-roak beti bi aldiz deitzen du" pelikula erotikoa, eta sintzeroa izanen naizela esan dut: paja bat botatzeko asmoa nuen pelikula ikusi ondoren, baina, ez nau seduzitu, eta pentsatu dut manibelari ematen galduko nuen denbora artikulua hau egiteko aprobetxatzea.

Hiru urte Mondragoen egina naiz, eta ezagutzen dut pittin bat horko sistema demokristau berria, eta ez dakit zergatik, horko profeta famatu horren sententzia bat geratu zitzaidan buruan, beste guzien gainetik. "Socializando el saber/se democratiza el poder", esaten zuen eskolako paretan zintzilik jarrita zegoen sententziak. Oso esaldi erotikoa, portzieto, horkoa ere den Barrutiak esanen lukeen gisan esateko. Oso ongi sintetizatzen duela uste dut horko erlijio santu berria. Ni neu ere, naizen kaskagorrarekin, liluratu egin ninduen eta! Hortik atera kontuak erotikoa izanen ote den!

Geroztik urte franko pasa da. Hamarren bat bai gutxienez. Eta orduan liluratu egin baninduen ere, gaur liluratu aditzaren antonimo bat erabili beharko nuke; baina, ez dakit zein: hainbeste dira, izan ere! Dena den, esaldi erotikoa horren azpian bi gezur haundi ezkututzen direla uste dut: "jakintzarik ezin da sozializatu, ez eta boteretik demokratizatu ere". Astakeria izugarria esaten ari naizela usteko duzue, baina astakeriak esateko aukera eman didatenez, segi dezadan esaten. Hain oker ez banaiz, Rousseauk esaten zuen: "bere ordezkotzat beste norbait jartzen duena, jadanik ez da libre, are gehiago, jadanik ez da deus". Eta sistema kooperatiboak, demokrazia burgesak bezalaxe, ordezkarien bidez funtzionatzen du; baina, are okerrago dena: "kooperatibista ordezkatuak bere diruik pagatzen



Patziku Perurena *

ditu bere ordezkariak". Hau "... se democratiza el poder" esaldiaren bigarren zatia da gokia.

Bestetik, "socializando el saber..." esaldiaren aurreneko zatia dagokionez, bihoa honako Deskarteren esan hau argibidetzat: "botoen pluraltasunak ez du batere balio egia bilatzeko orduan, askoz zentzuzkoagoa baita da egia gizon bakarti batek bila

dezan, eta ez herri oso batek".

Honekintxe bukatzen dut lankidetzaren erotika mixerableari iharduna. Sintzeroa izaten segituz: Joxe Azurmendi lapurtu dizkiot aipuak, hain zuzen ere Euskadiko kutxa omen deneko horrek dezente lagundurik argitaratzen den JAKINETik hartuak. Entzun ere, aspaldian entzun nuen, Azurmendi bera ari omen zela zorioneko profeta horren obra eta biografia osoa aztertzen. Neure sintzeridateari eutsiz: ez dut entenditzen Joxeren kontradizioa, zeren, Tejero ezezik HBko militanterik iraultzaileena ez baita libratzen kooperatibismo demokristauaren erotismo zikin horretatik. Niri izugarri gustatu zaizkit Joxek Mirandereren aitakitan JAKINen apuntatzen dituen akats horiek. Baina, zertako alde batetik akatsak seinatu? Gero bestetik akats berak defenditzen aritzeko?

Sintzeridatez bukatzeko: artalde baten sistemak edo edozein animala talderen sistemak, gizarte sistemarik iraultzaileanak baino askoz gehiago liluratu izan nau beti.

Azken oharra: goiko fotografi hori, horko eskolako erresidentzian neronek neure buruari aterea da, eta neronek rebeltaua, artean gazte nintzela. Hor izan nituen lagun eta etsai guzietatik dedikatzen diet. Geroztik asko zakartu naiz. Baina, esaten dute, buruz argitzen dena, itxuraz zakartu egiten dela, eta ni ere kontsolamendu horrekin bizi naiz. Besarkada bat arrasatear guzietatik, eta muxu bat, zorionez oraindik inozente den iloba Ibai pottoloari.

(*) Idazlea

Oihartzunik gabeko lau tiro

U-29 famatu hartan *Zuk Nahi* tabernaren kontra bota ziren tiroak ahanzturaren itsasoan murgildu bide dira. Herrian eta prentsan lotu egin ziren Ostarku dantzalekuan goizean goiz gertatutako istilua eta tiroketa. Lehenengoan Arrasateko ertzain bat egon zen sartuta eta askoren eritziz, tiratzailea ere pertsona bera izan omen zen.

Arrasateko Ertzaindegira deitu dugu informazio eske eta esan digutenez, esku artean dituzten datuen arabera, ez dago erlaziorik gertakari bien artean. Tabernan ez dute bala kaskilorik topatu, bai ostera proiektilak. Zeuden lekuko guztiei egin diete galdeketa eta ikerketen emaitzak Bergarako epaitegira bidali dira. Kasuak zabalik darrai.

Igeriketa eta squasha

Gazte Batzordeak Igeriketa eta Squash ikastaroak antolatu ditu, eta astelehenean amaituko da izena emateko epea.

Igeriketari dagokionean, ikastaroak Santo Tomas inguru arte iraungo du, klaseak egunero izango direlarik 6,20etatik 7etara.

Squasha ere egunero emango da, goizeko 10etatik 11etara. Bi ikastaro hauen prezioa ere berdina, 300 pta.

Roneo eta

Zerrajerako emakumeak

Larunbat honetan elkartuko dira Zerrajera eta Roneon lan egin izan duten emakumeak. Meza eguerdiko ordu batean, Musakolako Santa Teresa eleizan. Vermuteoa egin eta gero, Ostalean antolatu dute bazkaria.

AATOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA


P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

Izen propioak



Joan zen ostegunean, **Eta Kitto** aldizkari eibartarraren bi ordezkari izan genituen bixitari Arrasate Pressen, Fernando Muñozguren eta Joseba Zinkunegi. Eta Kitto euskaraz idatzia dago eta hilean behin kaleratzen dute. Asmoa, hamabostean behin ateratzen hastea.

■ **Julian Serrano**, 48, Euskadiko Eskola-Kontseiluko partaide berria. Madrilen jaioa, Valladoliden Fisikan lizentziatu zen. S. Biatorreko zuzendaria urte luzez izan ondoren, Hezibide Elkartearen sartu zen duela zortzi urte. Eskola Politeknikoan ere Batxilergo Teknologiko mailan irakasten du. Eskola-Kontseiluan Jose Angel Viguri arabarra ordezkatu du.

■ **Jesus Ma. Elejalde**, 54, Aramaioko parrokoak "Ayer y hoy del Valle de Aramayona" liburua argitaratu du. Salturralde baserrian jaioa, abadetu ostean Olaetan egon zen sei urtez apaiz. Ecuadorko Los Rios-en beste sei urte eman zituen. Itzuli eta gero Garagartzako Ulgorren egin zituen hamar urte lanean. Hamezortzi daramatza Aramaioko erretoretzan.

■ **Joxe Iturbe**, 56, Bedoñako Bio-so baserriko gaztagileak Lehen Saria irabazi zuen Gernikan, urriko azken asteleheneko ferian. Gazta horren erdia 85.000 pta.tan saldu zen, ondoren egindako enkantean. 1982an Elgoibarren eta 87an Bergaran ere lehen sariak eskuratu zituen. 1955ean Oñatin egindako lehen Ardi-Txakur Txapelketan ere garaile izan zen, 'Txino' txakurrekin.

■ **Jon Garai**, 31, Arrasateko duen udaltzain berria. Eskola Politeknikoan hasi zen ikasten. *Lortu, Nekez, Txortan* eta *Zintzoak* musika taldeen gitarrajole izana. Langa-bezian zegoen.

Astelehen arratsaldean ekin zioten Biona tabernan "**Munduko V. Partxis txapelketa**"ri. 35 bikote aurkeztu dira aurtengoan, azken sariaren bila. Ideia polita neguko monotonia pixka bat hausteko.



Uztailaren 22an **Pilar Zarama** eta **Jose Miguel Salaberri** ezkondu ziren. Arrasateko San Frantzisko elizan. Zorionak.



Pedro Luis

- ✓ "Irrifarra sorterazten dizu eta liburua amaitu arte ez zaizu irrifarra desagertzen" (Anjel Lertxundik, *Zabalik*)
- ✓ "Zaila egingo zaio irakurleari liburua bazter batera utzita ez bukatzea" (Josu Landak, *Argia*)
- ✓ "Liburua samur, gogoz eta irribarre jarraitu batez irakurtzen da" (Gerardo Markuletak, *Arrasate Press*)

"Txakur zaunkak atean"

Moldatu ala desagertu

Denak pozten ez dituzten aldaketak Coprecin

Lantegi baten inguruko berriak aztertzea nahiko zail eta korapilotsua suerta daiteke. Arrasate inguruan kooperatibak ditugu nagusi eta berauen inguruan sortutako berriek biziki kezkatzen gaituzte, kooperatibetan gutariko askok lan egiten bait du. Aspaldi honetan Copreci kooperatiba bilakatu zaigu berri, egoera txarretik irteteko egiten ari den ahalegina edota zenbait sektoretan sortu den ezinegona medio.



...arriean dirua irabazten hasia espero dute

Gainbehera gelditu nahian

Copreci kooperatiba, urte askotan zehar garapena ezagutu eta egoera onean egon bazen ere, azken urteetan gainbehera prozesu batean murgildurik aurkitu dugu. Merkaturaren eta ekonomi arloan eman diren aldaketek, egoera kaskarrean harrapatu dute Copreci, ondorioz egoera delikatuaren dagoelarik.

Faktore ugari izan da eragina honetan, hala nola, diruaren bilakakerak, arantzelek, materialaren salneurriek, elektragailuen osagaien -Coprecik egiten dituenak- merkatuaren konzentrazioak etab.ek.

Ezin ahaztu, bestalde, Coprecik azken lau urteetan ez duela produkzio hobekuntzarik ezagutu, kostoak %40ko igoera izan duten bitartean.

Faktore guzti hauek izan beharko ditugu kontutan beraz, Copreciren gaur egungo egoera ulertzeko.

Copreciko Batzorde Zuzentzaileak adierazi duenez, gaur egun, ekoizpenen kostoetan erabateko eragina du eskulanak, honi nolabaiteko konponbidea aurkitu behar zaiolarik, Europar lehiakide oso indartsuekin egiten bait dute topo.

Beraz, aurreko guztia ikusiz, aldaketa prozesu bati ekin behar

eman ahal izateko, jatorriz amerikarra den, baina Belgikan filiala duen aholku enpresa baten laguntza eskatu dute, sistema berriak martxan jartzeko lagun diezazkien.

Aholku enpresa hau, Proudoph dugu eta urte honetako uztailetik abendura arte Coprecin lanean aurkitu ditugu. Martxan jarri nahi den sistema berriaren helburua, denbora galtzeak murriztea da, langileari aktibitate edota abiadura handiagoa eskatu gabe produkzioa gehituz. Coprecikoen ustez, edozein erakundetan behar bezala aprobetxatzen ez diren denbora tarteak daude. Sistema berri hauek, denbora horiek neurtu eta jaitea dutelarik helburu bezala. Sistema honek, sarritan segimendu azkarrak egitea eskatzen du, erabakiak azkar hartzeko ahalbidea egon dadin eta eraginkortasuna gehitzeko.

Beraz, ekoizpena gehitu egingo da egunean zehar lan-efektibo gehiago egingo delako. Copreciko Batzorde Zuzentzaileak, lan-eraginkorraren gehitzea, hasieran nekeza suertatuko dela azaltzen du, langile zuzen eta zeharkakoez hitz egiten duela argitzen duen bitartean. Haien ustez, ezartzen ari diren sistemak lantegiak jasaten dituen arazoak ager arazten ditu konpontzeko bidea jartzeko duelarik.

Laburbilduz, gestio sistema eraginkorragoa jarri nahi dute, merka-

Coprecik ez du, azken 4 urteotan produkzio hobekuntzarik ezagutu

diote egoera konpondu eta Copreci dirua irabazten has dadin.

Gestio sisteman aldatetarik

Coprecikoen eritziz, beren gestio sistemak erabat desagokiak dira, aldatu beharrean aurkitzen direlarik. Gestio sistemetan aldaketa hau

tuan lehiatzeko gai izateko. Kontutan izanik eskulan eta tresneriaren kalitatean lehiakideen maila izateko zailtasunak dituztela.

Sistema hau erabiliz, datorren urtean emaitza onak izaten hasia espero du Coprecik. Beraz, epe la-

burrean gauzak aldatzeko esperantzaz dute.

Edozein modutan ere, gestio aldaketa honekin batera MTM neurketa sistemaren inguruko berriak plazaratu dira.

1983an MTM sistema erabiliz tekeen neurketa sistemetako bat bezala honartu zen. MTM neurketa sistema, 1988an ezarri zen Coprecin Kontseilu Sozialak beronen erabilpena onartu ondoren eta dagoeneko erabiltzen hasi zirenetik urtebete pasa denean, Batzorde Zuzentzailearen ustez, MTMaren eskakizunak orokorki betetzen ari dira.

Edonola ere, Batzorde Zuzentzailearen esanetan, kooperatibetan ohi denez, gai guzti hauek batzorde ezberdinetan eztabaidatzen ari dira, egon daitezkeen kontrako jarrerak konpondu eta argitu asmoz.

Kontseilu Sozialen zenbait kexa

MTM neurketa sistema, lanera egokitu aurretik Kontseilu Sozialak onartutakoa dugu. Hala ere, martxan jarri denean, lehen arazoak sortu dira. Kontseilu Sozialako kide batek azaltzen digunez, *"MTM sistemari ekin ziotenean aktibitatea betetzen ez zuen jende ugari zegoela kontratatu ginen. Dagoeneko jendea hasi da aktibitatea betetzen, baina egokitze denbora luzearen ondorioz"*. Kontseilu Sozialakoen eritziz,

fisiko gehiago eskatzen duena. Hau ikusita, Kontseilu Sozialakoen eritziz MTM ez da erabili behar neurketa sistema gisa, prozesuak hobetzeko sistema bezala baizik. Era honetan produktibitatea gehitu



Jende ugari ohitu beharko du aldaketetara

egingo litzateke, baina esfortzu bera eginez.

Kontseilu Sozialakoen eritziz, MTMak eragindako arazoei Proudophek proposatzen duen lan-denbora gehitzea erantsi behar zaie. Beraz, eta laburpen gisa, MTM

Zenbait sindikatu ere haserre

CCOO eta KT sindikatuak Coprecin ezarri den MTM neurketa sistemaren kontra azaldu dira. Haien ustez, produkzio erritmo oso altua

partzen du, jendearen mugimenduak robotizatuz. Honek lanaren intentsitatea, lan-denbora eta esplotazio tasa gehitu egiten ditu, jendeari arazo psikiko eta biologikoak sortuz.

Sindikatu hauen ustez, sistema hauek ez dira egokiak lantegi batean lan egiteko eta are gutxiago lantegia kooperatiba denean. Beste enpresa batzuetan horrelako neurketa sistemak ezarri direnean negoziazio epeak eman dira eta hau da sindikatu hauen eskakizuna.

Edozein modutan ere, beraien ustez Coprecin bere arazoak konpontzeko produkzio gehitzeko bidea bakarrik hartu du, beste barruko arazo estruktural batzuk konpondu barik

Sindikatuak negoziazio epeak eskatzen dituzte, neurketa sistema hauek ezarri aurretik

MTM delakoa neurketa sistema oso sofistikatu dugu, edozein pertsona edota makinarentzat denbora zehatza jartzen duena eta aurreko neurketa sistemak baino mugimendu

prozesuak hobetzeko erabiltzea, Proudophek proposatutakoa denon artean aztertzea eta lantegiarentzat lanaren antolaketa berria lirateke Kontseilu Sozialaren eskakizunak.

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**


Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

TXITXINPE

BEREZITASUNAK

Kafea, ardoak, urdaitegia,
frutu lehorrak

Arrasate Pasealekua 33,
Tfnoa: 79 67 76 ARRASATE



ARRASATEKO UDALA

Udalbatzak aurtengo azaroaren 3ko osoko bilkuran hartutako akordioak:

- 1 Hogeitamar egunetan, *S-3 Sektorearen Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak Birdefinitzeko Testuaren Aurrelaburpena* jendaurrean jartzea, Erakunde, Korporaziokide eta Partikularrek iradokizunak egin ahal ditzaten eta, hala badagokio, planeamenduko beste alternatiba batzuk ere bai.
- 2 Hogeitamar egunetan, *S-3 Sektore Industrialaren Antolatze Plan Partzialaren Aurrelaburpena* jendaurrean jartzea, Erakunde, Korporaziokide eta Partikularrek iradokizunak egin ahal ditzaten eta, hala badagokio, planeamenduko beste alternatiba batzuk ere bai.
- 3 *U.13.1 Unitateari eta U.13.2 eta U.12.1 Unitateetako zati bati buruzko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Elementuak Aldatzeko Testuari* hasierako onespina ematea, zenbait matizazio eta xehetasunekin. Eta testu hau hogeitamar eguneko epearen barruan jendaurrean jartzea, iradokizunak egin ahal izan daitezten.
- 4 (*Iturripe Ingurua*) *U.5.2. Unitateari buruzko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Elementuak Aldatzeko Testua* behin-behinekoz onartzea eta testu hau Gipuzkoako Foru-Aldundian aurkeztea, behin-betiko onar dezan.
- 5 Zenbait xehetasunekin, *U.6.17 Unitatearen Berne-Erreforma egiteko Plan Bereziaren Testua* behin-behinekoz onartzea eta Gipuzkoako Foru-Aldundian aurkeztea, behin-betiko onar dezan.
- 6 Alkatzaren irailaren 26ko Dekretua berrestea, 388/89 errekurso kontentzioso administratiboari buruzkoa.
- 7 Gasteizko EKAIN kolektiboko abokatu eta prokuradoreei auzitan aritzeko ahalmena ematea.
- 8 Gipuzkoako Foru-Aldundiari, *Iturripen Kiroldegia* eta pista balioanitzak Eraikitze Proiektua, 232.889.454 pta.koa, 1986/1990eko Kirol-Instalazioen Foru-Planaren barruan sartzeko eskatzea; bai eta *Ferixalekuan Pilotaleku Estalia* Eraikitze Proiektua ere, 335.765.246 pta.koa.

Arrasaten, 1989ko azaroaren 6an

ALKATEA,
Xabier Zubizarreta

“Normaltasuna ez zait batere gustatzen”

Imanol, Arrasaten ere heterodoxiaren zeinupean

Bukatu da. Ordu t'erdiz aritu da Imanol kantuan, kantu zaharrak eta berriagoak, koplak eta baladak ematen.

Tartean Xabier Leteri oroitzapen sentikorra luzatu dio, “une oso larriak igarotzen ari den honetan”. Hurbildu den jende ugariak gogotik txalotu du kantaria eta bi bider itzulerazi ere bai. Baina orain bukatu da. Eta aldagelan “Peña Marino”ko lagun batzuk agurtu ondoren, irribarrez hartu gaitu Antiguoko gizonkoteak.

Hogei urte paseak daramatza Imanolek kantuan. Francoren garaian exilioa ere probatu behar izan zuen. Orduko Imanol haren kantua garrasia zen, zapalduaren oihua. Gaur, aldiz, oihu hura gozatu egin da, askotan belarrira xuxurlatzeko gai bihurtzeraino.


— Imanol: Garaiak garaiak dira eta nire orduko 20 urteak ez dira gaurko 42ak. Dena den, nik opresioa salatu izan dut beti eta orain ere horretan segitzen dut. Hori bai, frankismoaren opresioa oso zuzena eta gogorra zen. Ni orduan klandestinitateko militante nintzen eta koiuntura hari lotua zegoen nire kantagintza. Orain agian zentzu orokorragoa dauka nire lanak. Opresioaren aurka kantatzen dut, baina baita paisaia poli edota amodiozko istorio eder bati buruz ere.

Bestalde, herri honekin beti oso kezkatuta egon naiz eta nago, baina oraingo partiduetan ez daukat batere esperantzarik, herri honetako gehiengoarekin ez dut konfiantza handiegirik. Uste dut nahiko kontserbadorea dela eta zenbait gauza ez direla gehiegi aldatu, hala nola elizak giza erlaziotan daukan eragina edota elkarte gastronomikoen inguruko giza jokabideak. Ni, neure kantuen bidez, guzti hori aldarazten saiatzen naiz, jendeari poesia eta literaturarako

kuriositatea sortarazten.

— *Espreziobide bai, baina kantua ogibide ere bada. Zer moduzko ogibide da euskaraz kantatzea?*

— Beno, euskal kantarien egoera oso ezberdina da, segun eta se kasutan. Hiruzpatalau nahiko ondo gabiltza, Benito, Oskorri, neu, Laboa ere bai nahi duenean... Ni neu duela 18 urte bizi naiz kantutik, nahiz eta exiliotik etorri berritan irakaskuntzan aritu behar izan nuen urtebetez, kantatzeko baimenik ematen ez zidatelako. Orain, adibidez, 45 emanaldi inguru izaten dut urteoro Euskal Herrian eta beste 15 edo kanpoan. Aparte ikastetxetan ere aritzen naiz, duela zazpi urte hasi nuen esperientzia batekin, aurrez nire testuak



Imanol

zionalak dirudite.

— Bai, sarritan esan didate hori eta niretzat sekulako lorea da. Jakina, ni betidanik nabil kantu zaharren esparru horretan, Argiarekin dantzan hasi nintzenetik. Kutsu hori hor dago nonbait, subkontzientean, eta koplei musika jartzean atera egiten da. Besterik gabe. Dena den, asko estimatzen dut arlo hori.

— *Inoiz kanturen bat gaztekeraz kantatu eta grabatu ere egiten duzu. Ze jarrera duzu gai honetaz?*

kasuak salbuespenak dira, nire espreziobidea eta kantagintza euskaldunak dira eta izango dira.

— *Dena den, gai honetan bezala beste zenbaitetan ere nahiko heterodoxo agertu zara. Adibidez, “Ez dok amairu” taldekoek alboratu egin zintuzten erabat eta espreki. Edo Gwendal taldearekin egin zenuen “Lau haizetara” disko hura oso atipikoa izan zen, molde-apurtzailea.*

— Egia da, bai, eta erabat asumitzen dut heterodoxia hori, kontrakorronte ibiltze hori. Niri normaltasuna ez zait batere gustatzen. Aldiz, sentitzen dudana egitea gustatzen zait. Gogoratzen dut -eta hau ez dut inoiz kontaktu- exilioan nengoela Telesforo Monzonek gonbidatu ninduela afaltzera. Eta postrera iristean esan zidan berak idatzitako kantu batzuk nik kantatzea nahi zuela. Eta nik esan nion barkatzeko baina kantu haiek ezin nituela kantatu, ez zitzaizkidalako gustatzen. Gerrogo Pantxoa eta Pellok kantatu zituzten eta oso famatuak egin ziren. Baina niri ez zitzaizkidan gustatzen.

Mikel Irizar

“Zentzu batean, hizkuntzak ere estetika dira”

eta kantuak aztertu dituzten ikasleentzat kantatzen. Eta azkenik diskoak. Hamalau badituzte eginak dagoeneko eta hortik, komunikabideen ikusminaz aparte, diru pixka bat ere iristen da. Elkar argitaletxeak oso ondo funtzionatzen du arlo horretan.

— *Zure kantagintzan nabaria da tradizioaren kutsua. Kopla batzuek zeuk eginak baino gehiago tradi-*

— Ni euskal kantaria naiz, baina atea beti zabalik uzten diet beste estetika batzuei. Eta alde honetatik hizkuntzak ere estetika dira. Orain, adibidez, Alfonsin Estorniren poemekin disko oso bat egiteko asmotan nabil, eta hori euskaraz egitea ez da zentzuzkoa, jatorrizko estetika errespetatu behar dela iruditzen zait, eta hori jendeak ulertu beharko luke. Dena den, honelako



Jende gaztearekin segituko du Fagorrek

Fagorrek txirrindularitza utzi

91n itzuliko litzateke Toshiba taldeaz elkartuta

Badirudi aurtengoan Fagorrek txirrindularitza profesionalaren mundua utzi egingo duela, nahiz eta azpiko ekipoei eusten segitzeko asmoa izan. Aditzera eman zuten, 91n berriro itzuliko litzateke Toshibaekin elkartuta, eta lehen mailako taldea osatu asmoz.

Idea hori erakutsi izan du beti ere Fagorrek, orain urte batzuk berriro ere txirrindularen munduan agertu zenetik: punta-puntako ekipoa sortzeko ideia, hain zuzen ere.

Lehen saioa Pedro Muñozen inguruan egin zuten, baina ez zitzaizen ondo atera. Hara non lortu zuen Fagorrek 88 eta 89 denboraldietarako momentuko txirrindularirik onena fitxatzea, Stephen Roche irlandarra. Dena den, heldu bezain

laster hasi ziren istiluak ekipoan. Rochek urlia ekarri nahi zuela, Fagorrek ezetz...gainera hainbat lesio izan ditu irlandarrak bi urte hauetan; arrazoi bata zein bestea zirela medio, Stephen Roche ez du deus positiborik egin Arrasateko taldean.

Oraindik ere saio berria egiteko asmotan zebilen Fagor. Toshibaekin elkartuta Greg Lemond amerikarraren aldeko apostu gogorra bilatu zen, baina honek uko egin zion eskaintzari. Azken orduan Marino Lejarreta ekarri nahi izan dute; berriztarrak, ordea, Once taldearekin sinatu du akordioa.

Gauzak horrela, aurtengoan behintzat ez dugu Arrasateko izena txirrindularien elastikoetan aurkituko. Agian 91n. Agian.

Eskubaloian finalera

Federazio koparen finalera heldu zaigu Arrasate Kirolak eskubaloi taldea, finalerdian Usurbili 17-20 irabazi ondoren. Lan bikaina burutu dute, hainbat ekipo kaleratu behar izan dituztelarik hona heldu aurretik. Finala larunbat honetan, 6,30etan, Zumarragako kiroldegian Ormaiztegi taldearen aurka. Txapeldunak?


Saskibaloian ezin

Argi dago aurtengo denboraldian nahiko makal ari direla Arrasate Kirolak saskibaloi taldeko jokalariek. Bostgarren ihardunaldian Iruñako Barañain taldea izan genuen bixitari Musakolako kiroldegian. Aukera ona zuten gure jokalariek, baina partidu amaieran 63-90 emaitzaz nagusitu ziren naparrak. Arrasatearren aldetik Garai izan genuen saskiratzaile onena, 16 puntuz. Datorren astean Arrasate-Patronato neurketa ikusi ahal izango dugu, berriz ere Musakolan. Zerbait ere asmatu beharko dute gure jokalariek, sailkapeneko azken postutik irteko.



ENARA
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



ARDILLA
artileak

Puntozko jantziak eskuz eta makinaz
egiten dira

Kalealdea 13, B. Tfnoa: 79 65 93

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

podiuma

Ander Landaluze, kirol arraro horiek dastatzen

Badaude pertsona batzuk jaio orduko kirola egiten hasten direnak. Ander ere horietakoa dugu. Gehienok motorraren munduarekin duen harremanagatik ezagutzen badugu ere, makinatxo bat proba egin izan ditu beste arlo batzuetan. "Bizikleta gustatzen zitzaidan eta kolore guztietakoak eduki nituen. Eta mendia, ikaragarri ondo pasatzen genuen lagun batek eta biok gure kontura eskalada egiten".

Denetik dastatu. "Aitzejaunek, Tobiasek, 1920ko Harley Davidson handi horietako bat zeukan. Hor ikusten nuen, eta gustatu noski. Nere laguna soldaduzkara joatean, bakarrik gelditu eta motorraren 'harrak' harrapatu ninduen".

Lehenengo lizentzia 1974an ateratu zuen, hogeitabat urterekin. Orduko motorrak ez omen ziren beste munduko gauza, "gehienbat ere 'injertoak' egiten genituen".

Triala, paraje berriak eta txoko zailak ezagutu, gaintu. Garai baten izugarritzko bultzada jasan zuen kirol honek, Montesa eta Bultako bezalako enpresen interesak medio. "Orduan proba asko antolatzen ziren, pentsa, nik urtero 46 bat korritzen nituen. Gero enpresa horiek porrot egin zuten eta trialaren munduan hori asko nabaritu zen, ez ziren txapelketak antolatzen. Aspertuta edo, utzi egin nion ofizialki lehiatzea".

Ofizialki lehiatzeari utzi, baina ez zuen ez kirolaren mundua ahaztu. Esperientzi berrien bila abiatu.



Aitzgorri, Ander, eta bere motorra

zen hor-nonbait. "Negan eskiatzera irtetzen nintzen eta udan Windsurfing probatzen hasi. Ur-motorrak ere gustatu zitzaizkidan, eta oraindik gaur egun ere udan sarritan joaten naiz Uribarrira".

Probak proba, auten berriz itzuli da kompetiziora. "Lehenengo aldiz antolatu da Gipuzkoako txapelketa, eta interesgarria iruditu zitzaidan bertan parte hartzea".

Urteak, ordea, ez dira alferrik pasatzen, eta trialean ere aldaketa ugari ezagutu ditu. "Mekanika alde-tik, makinak fenomenalak dira ordukoekin konparatuz. Eta estiloa ere ez da berdina, azken bolada honetan 'Trial-sin'etik jende asko etorri da motorretara, eta igartzen zaie, trial kontrolatua egiten dute, ez dira beterranook bezain dinamikoak...".

Datorren urtean erabat utziko du kompetizioa, lehia. Dena den beti aurkituko duzu Udalaitzerako bidean, Kurtzebarrin, Aitzgorrin. Egun berriari emozio berria zor bait dio Anderrek.

■ **Mondra hala-hola**


Ostiral gauean Meson Manolon izandako afarian (Seguros La Estrellaren diru-laguntzaz), taldea itxaropentsu agertu zen Gernikan jokatu beharreko neurketaren aurrean. Giro ona bai, baina zelai gainera irtetzeko orduan ez dabilta fin gure mutilak. Gernikan ere 2-1 irabazi zuten Bizkaitarrek. Hala-hola dabil Mondra aurtengoan, hamar partidu eta gero sei puntu besterik lortu ez dituelarik. Asteburu honetan Zornotzakoak hurbilduko dira Atxabalpera, eta gogoratu zaletuek ez dutela oraindik etxean Mondraren garaipenik ikusi.

Lankide Aurrezkia

ETB eta Lankide Aurrezkiak pilota txapelketa berezia antolatu dute aurtengorako, lau t'erdian Retegi, Alustiza, Tolosa eta Galartzak jokatu dutena, hain zuzen ere. Txapelketaren aurkezpena Arrasaten egin zuten, Olandixo baserrian, lau pilotariak ere bertan izan genituelarik.



Denborapasen soluzioak
Bertako hitz ahaztuak
 Haizebilo
Ezetz asmatu
 1949



OKENDO

KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Epaimahaia

Azaroaren leian Hernanin eta Sean Hendaian, Txapelketaren kurrupila biraka hasia da, jaietako bilera horietan zehar elur pelota bezala handiagotuz joango delarik.

Txapelketaren berezitasun nabarmenari heldu nahi diogu gaurkoan: bertsoak neurtzeari. Aurten ez da bertso bakoitzaren puntuaziorik agerian emango, baina idazkariek batu ahala ordenadoreak jasoko ditu eta saioaren bukaeran, ikusi nahi dituenaren eskura izango dira. Epaimahaia osatzen duten 9 lagunek (Antton Ma. Aldekoa-Otalora, Joxe Ma. Arrieta, Trino Azkoitia, Joxerra Gartzia, Rufino Iraola, Mixel Itzaina, Abel Muniategi, Jesus Ma. Etxezarreta eta Iñaki Sarriugarte) bertsozale kualifikatuak denak ere, edozein entzulek bezala bertsoa entzun, dastatu eta sortzen dion inpresioa



kalifikatu beharko dute, inpresio jakin bati beti puntuazio bera emanaz. Hori dela eta, Bertso *Balekoa* hartuko dute oinarritzat (5 puntu) eta hortik gora onari 7, oso onari 8 eta bertso apartari 9/10 ematea erabaki dute. Bertso txar samarra 4 puntutan utziko dute eta txarrari 3 edo gutxia go emango.

Ohi denez, gaiaren trataera, batak bestearen arrazoiari erantzutea, hizkeraren egokitasuna eta errima aberats eta neurria egoki erabiltzea

izango dira bertsoa epaitzeko erizpide nagusiak. Doinua aukeratu eta ondo kantatzea, eta bertsoa denbora tarterik gabe hastea ere baloratu egingo dira.

Edozein bertsozalek ezagutzen dituen arauak dira, baina bertsolarietako bezala, bapatean egin beharko dute epaileek ere euren lana. Eginkizun nekeza eta eskergaiztokoa, zalantzarik gabe.

Arantzazu Loidi

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Trapo's

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38 ARRASATE



**ARRASATE
PRESS**

astero zuekin

Lau auto aurrez-aurre

Auto saltzaileen eskaintza beti ere ugalduz doa eta benetan zaila suertatzen da marka eta modelo bakoitzaren ezaugarriak jakitea. Hori dela eta, aldizkari espezialduak sarritan argitaratzen dituzte ezaugarri berdintsuak dituzten autoen arteko konparaketak, bakoitzaren berezitasunak nabarmen daitezen. Oraingo honetan, *Motor 16* aldizkariak Renault 21aren berrikuntza aitzakitzat hartuz, erdi mailatik goraxeago dauden lau auto hauek jartzen ditu aurrez aurre:

Datu hauek osatzeko esan dezagun Renault-a eta Citroena Espainian eginak direla, beste biak inportatuak diren bitartean. Baita ere, Renault-a eta Opel-a modelo berriak direla, beste biak urte batzuk soinean badituzten bitartean.

Eta bukatzeko, aldizkariak lau autoen 18 ezaugarri baloratzen ditu, kasu bakoitzean lehenengotik laugarrenera ordenatuz. Balorazio hori laburbilduz, hona hemen zenbait aldiz lortzen duen auto bakoitzak postu bakoitza:



R-21 TXE • FORD SIERRA 2.0 i GHIA • OPEL VECTRA 2.0 i CD • CITROËN BX 19 GTI

EZAUGARRIA

	R-21	BX	Sierra	Vectra
• luzera (metrotan)	4,46	4,23	4,49	4,35
• pisua (kilotan)	1.080	1.025	1.060	1.137
• zilindraia (zm ³ tan)	1.995	1.905	1.998	1.998
• potentzia (zalditan)	120	125	125	115
• gehieneko abiadura	194	193	190	197
• ABS frenuak	bai	aukeran	aukeran	aukeran
• batazbesteko kontsumoa	9,2	8,3	9,3	7,9
• azelerazioa 0-100 (seg.)	9,7	9,8	11,5	9,6
• gehieneko zarata (dezib.)	82,4	83,2	77,1	79,9
• prezioa (milaka ptatan)	2.458	2.225	2.798	2.584

	Renault	Citroen	Ford	Opel
• lehen postua	7 aldiz	3 aldiz	5 aldiz	6 aldiz
• 2. postua	7 aldiz	7 aldiz	5 aldiz	5 aldiz
• 3. postua	3 aldiz	8 aldiz	2 aldiz	5 aldiz
• 4. postua	behin	inoiz ez	6 aldiz	2 aldiz

Mikel Intxausti

**A
N
T
Z
E
R
K
I
A**

Azaroak 11, larunbata
Gaueko 10,30etan
Amaia antzokian

Adokin taldea

L. Riazaren

**"RETRATO DE DAMA
CON PERRITO"**


Sarrera: 300 pta.

Arrasateko Udalaren Kultura Batzordea

“Tio Pitx” jatetxean

Badira lau arte lokal honek jate-txe bezala funtzionatzen duela, Miren Zubiaga eta Sabino Nafarratek hartu zutenetik. Ezaguna da bestalde, bertako kangrejoak ateratzen dituelako. Ez dira noski, lehengoak moduan errekan hartutakoak, kangreju hazleku batean baizik. Hazleku hau Zubillaga auzoan, Txaretarako bidean aurkitzen da, Sabino Nafarrate bera proiektuan sozio izanik. Aurten izan dute lehenengo kumaldia, izan ere hemengo kangrejoek urtean behin bakarrik erruten dute.

Edozein modutan ere, lehen gure erreketan egoten zirenekin badute hauek ezberdintasun txiki bat. Biak dira familia berekoak, “*Astacus*” familiakoak, beltzak dira baina Zubillagan hazten dituztenak pintza bitartean zuriunea daukate. Ez dira Europakoak, Californiatik ekarritakoak dira. Mamina eta kuzinatuta



Erreketako kangrejoa

koan hartzen duten gustoa berriz, hemengo oso oso antzekoak dira.

Arraindegietan aurkitzen ditugunak, “amerikano” esaten diegunak, gorriak izaten dira, buztan motzagoa izaten dute eta ez hain mami goxoa. Beste alde batetik urtean birritan

erruten dute.

Honekin bada, hurrengo alerako uzten ditugu eman zizkiguten errezetak: kangrejoak saltsan eta txokolatezko tarta.

Morokil taldea

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tik aurrera sarbide zabalarekin

- *Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- *Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- *Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



Kalitate-garantia



Aluminio eta P. V. C. ko arotzeria

Abantailaz beteriko gure leihoek

- * Hotz, zarata, euri eta haizearen kontra babesten dute
- * Europako teknologia aurreratuena P.V.C. leihoetan.
- * Edil-Plastik sistemaz YOSU c.b. aroztegiak eginak.
- * Kalitate prezio erlaziorik onena

Lantegi eta erakustokia: Labe Garaiak. z/g

Erakusketa Berria: Kanpantorpea, 2 (Parrokiaren aurrean)



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera
- * Fresatzeko makinak
- * Zenbakizko kontrola
- * Mekanizazio-zentroak
- * Tornuak
- * Artezko makinak, etab.

Zaldispe kalea 10, ARRASATE

Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097

MANGO

lotsagabe jazteko

Postas 5, Tfnoa: 23 04 48 GASTEIZ

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak


LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80



ZENBAKI

*Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak*

Basabe industrialdea
ARETXABALETAK

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99


ARRASATE PRESS

79 71 64

Osasun gaia eta alderdi politikoak

Ikusgarria izan da azkeneko hauteskunde-kanpainan nola alderdi politikoek hiritargoari eskaini dizkioten "bikaintasun" guztiak botuaren truke. Baina bikaintasun horien artean Osasun Publikoa seriooki inork ez du ukitu.

Eta hori, osasun politika gaurkotasunezko gaia dugularik. Osasun Publikoa kilikolo dago oraindik gaur egun: Ez dago janarien kontrol egokirik; gaixotasunaren prebentzioak ia teoria hutsean jarraitzen duela esan genezake; lehen mailako zainketak edo atentzioak eskas samar dirau nahiz eta azken bolada honetan bere irudia hobetzeko saioak egin; ospitaleetako funtzionamenduak urte batzuk badaramatza aurrera egin gabe eta nahas-mahas sakonean gainera; ez dago farmakoen eta sendakuntz produktuen kontrolik edo hau urria da, dagoenean.



Panorama hau ikusirik, osasun-agintariak halere Osasun Publikoari laguntza mugatzearen alde daude, eta alderantziz izan beharko luke: laguntzak gehitu gaixotasunak eta populazioarengan dituzten ondorioak gutxi arazteko, hau da, gaixotasunen prebentzioa egin eta biztanlengoaren osasun-sustapenerako politika bultzatu.

Eta ekologiaz, zer esan genezake? Batzuek sartu dute izukor samar beren programetan baina gehiago

erraz saltzen den produktua delako eta ondo ikusitakoa gainera, eta ez benetan zeozer egiteko asmoa dutelako.

Arazo ekologikoak gaur egun beste garaietan izan ez duten neurrietara iristen ari dira eta soluzio egoki bat ematea erakunde aurreratuek planteatua duten desafiorik serioenetakoa da.

Ekologia eta Osasun Publikoa, hor ditugu hauteskunde hauetan ukitu gabeko bi gai.

Eukeni-Arantxa

sonora

KEF **Harman/Kardon** PANASONIK CEC MUSIMA
QUAD ONKYO Vegas

baile Clener CASIO EGI
Mission Goodmans BASF **NAKAMICHI**
HONNER Televes Ortela

Zimmerman Polytone LARK Rotel
 Fujitsu Fox

Cyrus **ERESI** MORESCHI
TEAC JBL PHILIPS

TORQUE PIONEER KELLER
 Hantarex Alpine *Admira* **Ortofon** JUGGS

Tensai MELOS **Estrella** KONIKA UHER
Fonestar SHINTON

Otalora kalea Tfnoa 79 29 09 ARRASATE

LILURA -ek
 zeure moda
 diseinatu
 eta sortzen laguntzen
 dizu

Zerkaosteta 5, behea.
 Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

LORATEGI
 taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

EDERRA

Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

SANIDES

Parasitoei aurre egiteko
 Insektu narraztiak akabatzeko,
 arratolak bame

URTEBETEKO GARANTIA
 Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

Bizikletan blai

Sarritan izan dugu zalantzarik neguko-udazkeneko igande goize-tan irteteko.

Zeinek ez zalantzarik eguraldi txarreko igande goizean mendira joateko? Nagikeria edo astindu eta eguraldi txarrari aurre eginez abiatu ginen Durangaldera, Iurreta herrira, goizeko 9etarako, Plaza ondoan dagoen San Migel eliz aurrera.

Berandutxo heldu ginen baina laster asko gertatu genituen egin beharrekoak eta berrikeria utziz (Goiurirantz) jo genuen, aurretik eta lehenago irten zutenak harrapatzeko asmoz.

"Eguraldi ederra", txakurra bizikleta gainean gindoazenontzat; ipurdixe be, ondo bustitte. Hasiera gorantz: gure auspoei eraginez, basozainaren etxeraino. Handik Abadiño Basoraino. Eskerrak antolatzaileei! osterantzean, hango danbarrada, txingorra, behelaino eta euri

jasa hartzerik ez zegoen! Laster aurkitu genuen bidea eta besteak harrapatu ere bai. Errekatxo galanta zeharkatzen ari ziren. Hango barrreak gutako bat errekarra "sartu" zenean; barrutik bustita eta kanpotik ere bai.

Aurrerantzean, kuadrilan, putzu guztietatik zehar, goitik behera mela mela eginda, blai blai. Berrito gorantza Maumaraino. Hura zen "txokolatea"! alboetatik ibili behar. Handik asfaltu-bidetik San Marcosera, Oromiño baserri-auzo ederra zeharkatuz.

Hara, kuadrila polita bertan! Ardoa, txorizo ugari -bikaina benetan-, gazta, ogitartekoak, denetik. Denok ondo bustita eta hotzak akabauta gengozen, etxera joateko asmoz. Eskuak ere gogortuta genituen. Berandu barik, pentsatu eta amaitzea erabaki genuen. Handik Arriandira joan eta Durangorako

bidetik Iurretara iritsi ginen. Ondoko pilotalekuan dutxa bero ederra hartu eta gertu etxera joateko.

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, esperientzia polita da baldintza berezietan nola aritzen garen ikusteko, abenturaren bame-sentsazio berezi hori dastatzeko eta bizitzan zehar betirako barru-barruan geurekin eroateko.

Gainera, Durangaldeko baserri-txoko berri asko ezagutzeko parada izan genuen, pifadiz jositako basoak zelan dauden eta eguraldiaren ondorioz, errekatxoak nola eratzen diren ikusteko. Zalantzarik gabe, askok hala eritziko dionez, ez da baldintzarik egokiena bizikletan ibiltzeko.

Batek zioen moduan: eguraldi "berri" honi ongi etorria egitera nator.

Gu behintzat, goiz osoan bizikletan blai.

B.B.T

ESTETIKA ETA LURRUN ZENTRUA

Miren Arrieta

"AMERICAN WORLD"

Sistema iraultzaileena jarri duela martxan adierazten dizue.

Nutrizio, gizeneria eta arteroesklerosian aditua den Lopez Aristegi Doktoarearen laguntza ere badu zentru honek

Konputagailu bidezko dieta programarekin

LEHEN SAIOA DOAN

Konpromezurik gabe
Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.

**TALLERES AGA,
S.A**

Zerreilgintza aratzeko gaiak

Legarre pabiloi industrialia
Tfnoa: 79 02 22
ARRASATE

CICLOS
ola.oste

Bizkaia etorbidea 10,
Tfnoa: 79 65 34 ARRASATE

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

ALTUNA
FRUITATEGIA
 Kalealdea 11n
 eta Merkatuan
 Tfnoa: 79 90 75 ARRASATE



Gas, gasolio eta
 elektrizitatezko berogailu
 eta aire girotuko instalazio
 elektrikoaren disenua,
 muntaia eta mantenua

Industrialdea, B-5, ARETXABAETA Tfnoa: 79 03 03 ARRASATE Tfnoa: 79 05 18

TABIRA
DIETETIKA
 Kosmetika eta produktu
 naturalak
 Estetisiena
 Munar 8, ARRASATE



Kabia
Altzariak
 Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

ARRASATE
PRESS
 79 71 64



GIPUZKOA

HERRI Irratia

Gamei, S.A.

**MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO
PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZALAK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK**

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

79 71 64

URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

UGARTE

industri hornidurak

Arrasate pasalekua

Tfnoa: 79 73 00-8396

Telefax: 793412



LORAMENDI

KIROLAK

Anorakak
lumatzak eta
kanguroak

**DENA
EURI ETA
HOTZETARAKO**



Errebuelta 2, ARRASATE Tfnoa: 79 97 24

ETXEBIZITZAK

- Bilbon (Deusto). Pisu merkea konpartitzeko bi neska behar ditugu. Tfnoa: 79.83.63. Marian.
- Pisua salgai Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 78 26 97.
- Neskez osatutako pisu bila ari naiz Arrasaten . Tfnoa: 79 20 11. Luz. 296 . 9etatik 1etara edo 2etatik 5etara.
- Pisua osatzeko lagun bila gabiltza (gelan bakarrik egongo litzateke). Interesatuak deitu 79 48 11 telefono zenbakira (lan-orduetan) Antoni Kruz edo Karlos Nikolasi.
- Neskez osatutako pisu bila ari gara Arrasaten. Tfnoa: 79 52 22, luz.165.. Murtxe. (Deitzekotan, 9etatik 12'30etara edo arratsaldeko 2etatik 5etara bitartean)
- Pisua salgai Aretxabaletan, Portasolen. Tfnoak: 79 81 23 edo 79 63 84
- Pisua errentan hartuko genuke Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 75 42. Goizeko 9etatik 1a bitartean deitu, astelehenetik larunbatera
- Pisua salgai Munar inguruan. 3 logela, egongela, jangela, sukalde, 2 bainugela, berokuntza zentrala, ganbara eta garajea (azken hau aukeran). Goizeko 7etatik arratsaldeko 8ak bitartean 79 39 39 edo 79 13 77 telefono zenbakietara deitu, asteburuan izan ezik.
- Donostian konpartitzeko etxebizitza behar dugu. Dei egin 79 67 76 edo 79 59 11 tfnoetara
- Lokala alokatzen da Uribe auzoan 36m² Interesatuak dei dezakete 79 84 37 edo 79 58 99 Tfnoa.
- Umerik gabeko senar-emazteak irakasle gazteak, etxebizitza behar du lehenbailehen Bergarako hirigunean. Dei egin 62 02 28 Tfnoa.

- Etxebizitza salgai Zabalotegi dorrean, Bergaran. Informazio gehiagorako deitu 76 17 37 edo 76 25 89 Tfnoa.
- Arrasateko erdialdean alokairuan behar dut lehenengo pisu bat edo beste bat igogailuz. Tfnoa: 78 07 46.
- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.
- Uribe auzoan pisua salgai ganbara eta garajeaz. Tfnoa: 79 49 66
- Muntatuta dagoen pixu batean gela bat hartuko nuke. Jose Manuel Tfnoa: 49 14 53 . Dei 8etatik 10etara

LANA

- Euskaraz dakien emakumea etxeko lanekin egin edo haurrak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73
- Neska arduratsua haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna, informeak ditut. Tfnoa: 79 93 17.
- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Inglesezko klaseak emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 780785 10etatik ordu 1etara, astegunetan.
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Ingeleszezko irakaslea behar da "3^a Bilbao" kurtsoa neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)

SALEROSKETAK

- Motorra salgai, Morini 250 cc matrikula SS-W. Tfnoa: 11 77 45. (9etatik aurrera)
- Bizikleta salgai. egoera onean. Zeus 2001. 40.000 ptan. Tfnoa: 78 00 35. Javier.
- Kanadiar kanpin denda salgai (2-3 lagunendako). Merke. Tfnoa: 79 68 45
- 60 W-ko Roland kitarra anplifikadorea salgai (egoera onean). Tfnoa: 79 95 83. Iosu.
- Liburu bilduma salgai. 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Tfnoa: 79 15 96.
- "Cremallosa" eta puntuzko jantziak plantxatzeko den tresna berezia salgai. Egoera onean eta merke. Tfnoak: 12 16 26 eta 12 15 84.
- Zurezko sehaska bernizatua salgai berri-berria. Interesatuak 79 47 14 tfnoa. deitu.
- Kotxearentzako garajea alokatu edo erosi nahi da San Andresen. Tfnoa: 79 50 53
- Paseoko bizikleta on eta merketxoa erosiko nuke. Tfnoa: 79 55 26. Ane
- Fagor markako ikuztallua salgai. Ondo dago eta merke salduko nuke. Deitu 7,30etatik aurrera 79 82 47 tfnoa.

DENETARIK

- Etxeko gauzak (altzariak, telebistak,...) bota behar badituzu, mesedez, bota aurretik deitu guri, tfno honetara 79 84 76 9etatik aurrera.
- Neskak erloju bat aurkitu du urriaren 13an Portaloian. Jabeak deitu. Tfnoa: 79 23 50
- Larunbatero, Oñatiko Udal Euskaltegian EGA ikastaro trinkoa, 4 ordu.

†
ARRASATEN HILDAKOAK

Higinio Manzanos García
82 urte. Azaroaren 4an.

Justina Gabilondo Albisua
77 urte. Azaroaren 5ean.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate Pasealekua 3 bis, etxebeha.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



Antonio Uribesalgo, "San Andres"

**ANTONIO URIBESALGO,
Zerrajerako anbulantziatz
ibillitako azken txoferra**

**HAUNDIXE IZETIEN
PROBLEMAK**

Hemen obra baten ero jabillan eta apendizero jaurkan. Deittu juzkuen jueteko eta bueno, baiñe kamillatik pe urten eitten jutzien hankak, eh! eta atie erdi zabalik eruen biher izen naixuan Donostiarano

Zerrajeran lan ein eta ordu libretan taxista

Ni San Andres baserrixen jaiointzuan 1922xen. Eskolan ez nitzuan luzero ibilli, 14 urteaz Zerrajeran lanien hasi nitzuan eta. Lanien nebillela be gabeko eskoletara jueten nitzuan eta hantxe ikesi naixuan gehixen.

Zerrajerie orduen militarizaute jaurkan eta bisagrarixako sekzifuen ibilli nitzuan andra artien. Gero Atxabaltan be bai gerrako obusentzako aletak eitten, eta azkenien txofer lehenengo anbulantziatz eta gero kamioiaz.

Hetruc-e eta lehenauko anbulantziatz

Hetruc-e zuan zerrajerako langillien segurue eta preparau jaurkan hola autobus bat jentie Donostiera erueteko. Autobusorrek eukiko jittuan dozenan bat plaza inguru eta anbulantzia-lanok pe harek eitten jittuan. Gauza haundik ez aukienak eta grabiek pe danak batera jueten zittuan.

Gero Seata jarri juen eta horrekin hasi nitzuan ni. Hasieran bertakuen-

dako eta pagaute zuan, geruau ipini juen kanpokuendako pagaute eta bertakuendako debalde. Donostiera egunien hiru bieje eittie normala zuan, Gatzagaifetik Maltzagaraiñokue kubriru biher izeten zuan eta.

Parto Kontuek

Artien Mundrauen etxaurkan ez Zentroik eta ez ezer eta jeneralien umie eukitako Eibarrera ero Bergara erueten gittuan. Geruau hasi gitzuan Bittoixera erueten. Ta, behin pasau jatan andra bat bane-roian eta bidien larri andrioi. Alabiaz joian eta hor Gamarra inguruen "por favor pare," Creo que es parto "Sujetale como puedas" esan nutzan, sakatu kotxorri eta oiñeztuen pare han allegau gitzuan Txagorritxure. Hartu juen eta nik bi papel eiñ orduko han etorri jatan medikue: "Hetruc, mire que niña mas hermosa" Burue bistan auela allegau zuan eta !.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Errebiro be etzan kazetari makala. Etzeuan lekutik pe mordua ekartzen ei zeban. Lagunartian, bestiek txistik eitteke zerela, ur bitsetan kontatzen zebilen:

— Gaztandolako pagadi gaiñian joan dan uso pasian, zer zuan ha! Goiz baten denpora gutxixan berrogetahiru uso bota najittuan, denpora gutxixan gañera. Ordu erdi inguruan izugarritzko uso bandadak pasau eta pasau gelditzeke. Han zuan amama! Amasaik hartzeke jardun najuan: danba! batera, danba! bestera, danba! albora, danba! haruntzgora...

— Ze txotxo? Danba, danba eta danba... zela baiña? eta eskupetia kargau noiz? -preguntau zotzan langun batek.

— Ze uste dok pa hik, hainbeste uso zatorrela kargatzeko astixa nekala, ala?

■ ■ ■ ■ ■

Behin joan zan guraso bat bere semiai elgorriza osatzen ibili zan medikuagana kontua pagatzera. Karu xamarra pensau jakon eta esan zotsan:

— Zerbait merkatuko dostazu baiña?


— Merkatu? zer dala ta?

— Ba nere seme horri esker darabizuzelako aurten holako irabazixak.

— Zer ba?

— Bera izan zalako eskoloko guztie elgorriza pegau zotsena.

Juan Martin Elexpuru



Bizkai jatetxea

Udala auzoa Tfnoa: 79 22 15 ARRASATE

ITSASKI

**arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak**

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



L ambada Mondragoera ailegatzeko urte mordotxo falta zen. Arrasatearrak, hala ere, ezin geldirik egon. 1944eko San Juanen hirugarren egun honetan adibidez, *Re-Re* tabernako terrazan bildu zen lagun talde hau. Garagardoak

ur patinean freskatu bitartean, vermouta eta ardo zuria mahaira atera eta aurrera mutilak! Soinujoleak, Luzio Markaide, jarrita, eta Felix Ugalde, zutik. Gitarrajolea Ramon Eriz eta jazzbanean Felipe Vitoria, soldadutzatik permisoz etorri berria. Haien inguruan Joxe Mentxaka, Gameiko

Mendizabal, Musakolako ostatuko Lasa, "Txaparro", etabar.

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak

Enkuadernazioak

IREKI BERRIA

Zarugalde 28, ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

79 71 64

AEDren eskutik, azkenengo 6 astetan OHIZKO SUKALDARITZAZ emandako ikastaroa arrakastatsu suertatu ondoren:

“ELIKAGAI BATERAEZINAK”

gaiaz 3 hitzaldi izango dira.

Emalea: **LURDES GOENAGA (Mediku higienista)**

Egunak: **Azaroak 14, 21 eta 28 (asteartek)**

Arratsaldeko 3etan, AEDren lokalean.

3 hitzaldi hauen ondoren, gai honi buruz bi saio praktiko izango dira.



Sport
SASIAIN



Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63 ARETXABALETA

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

ARRASATE
PRESS

79 71 64

Telebistaren aurrean pasatako ordu ustelak. Zu, zure telebista eta jada laukitua dezun burua.

Lanean emandako egunak; goiz eta arratsaldeak.

Semea, alaba. Agian ez diozu oraindik inori esan, baina urteetan lagun izan dezun emakumeak ez zaitu erakartzen.

Ez zaitu deus erakartzen.

Ezkondu zinela, eta bataiatu zenituela haurrak. Ia. Irrifarretsu joaten zinen igandeetan koadrilakoeekin, futbolera, purua eta patxaran kopa.

Antzoki zaharreko kantaldiak larunbatero; Laboa maixuaren kitarra kopia sentikor horiek kantatzerakoan.

Bai, oroitu ere oroitzen dituzu une hoiek, ezerezean galdutako sentsazioak. Oroitu.

Baina dagoeneko ahaztu egin duzu neskatoen begiradak zoragarriak direla. Irrifarre bat eta lagun bat, ein, horra hor bizitzaren sekretuak.

Eta zuk ahaztu egin dituzu.

Malaostia hori, gaur kriston belarrondokoa astindu diozu emazteari, lanetik bueltan afaria mahaian aurkitu ez dezulako.

Tori.

Arrazoi polita.


Gero, astiro-astiro altxatu eta telebista ikustera joan zara.

Ramon

BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate



EGIDO Ofdezko Piezak

Automobilerako ordezeko piezak

Legarre Pablola. Tfnoa: 79 62 11

■ **Bilboko Herri Irratia:** Nire etxean ez da hartzen emisora hau, baina berebidez nabilenean, segun eta norantz noan, bai. Igande goizean Bilborantz nindoala, berau entzuteko aukera izan nuen. Bizkaieraz ari zen neska, oso alai bera, musika ere halakotxea eskaini zigularik. Bi gauzak eman zidaten atentzioa. Goiz osoan zehar programatuta zegoen ekitaldirik garrantzitsuena, Zamudio inguruan txarto ez banabil, egiten ari zen ganadu erakusketa zen. 1989ko Bizkaian hori zen saiorik inportanteena Herri Irratiarentzat. Goiz hartantxe Bilbon atxintxika egin behar zuten 6.000 inguru korrikalarik edo probintzian zehar gertatu ziren beste hainbat ekitaldik ez zuten atentziorik merezi euskal programazioan. Horrelakoak entzunda, badirudi igandeetan euskaldunok erreztatzen edo ganadu artean ibiltzeko jaio garela. Bestelako informazioen berri emateko, Madrilako COPErekin egiten zuten bat hauek ere. Hala ere, zer esango dizuet, ba, irratian ondo hitz egindako bizkaiera entzutea oso atsegina egiten zait.

■ **Funtzioa:** Geroz eta gogokoagoa egiten ari zait ETBren saio hau. Aurrekoan aipatu banuen ere, ezin isildu azkenarekin izan nuen ezusteko pozgarria. *Joxe Mari eta Mikel* bikotea izan zen, nire ustez, programazio hartako errebelazioa. Haien abesti eta ahotsak ezagunak nituen arren, lehenengo aldiz ikusi nituen orduan eta sorpresa ederra eman zidaten, alafedea! Aspaldi ez dudala Hego Euskal Herriko jende heldua hain ondo eta erraz ibiltzen ikusi telebistaren aurrean. Euskaraz ondo egiten zuten, berba egiteko patxada handia, umorea saltzeko beste, eta kantore apartak. Bete egiten zuten pantaila inoren laguntzarik barik. Guzti hori lege zaharreko jendea izanda. Harrigarria benetan. Plazagizon-tasuna borborka zerien. Mariatxiak eta aho soinuak egiten zituen gizona ere primeran egon ziren. Martzianoak ez zitzaizkidan gustatu -inoiz ez, egia esan-, baina tira. Oraingo honetan nahiago dut Joxe Mari eta Mikelen zirt-zart egiteko moduz gelditu.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu


■ **Angel Heart:** Ostiralean, 9etan. Alan Parkerrek zuzendutako filmea. Antzesleak: Mickey Rourke, Robert de Niro, Charlotte Rampling.

Garrantzi gutxiko detektibea pertsonaia misteriotsu batek kontratatuko du gizon bat aurki dezan. Honen bilaketak Harlemerko kale, New Orleansko jazz klub eta Louisianako zingira itogarrietan ibiltzera behartzen du.

■ **Futbola:** Real Madrid-Athletic neurketa, Bernabeu zelaitik zuzenean. Larunbatean 8etan. Aukera ona bi talde hauen egiazko momentua ikusteko. Toshacken mutilei asko eskatuko zaie Europako kopa-tik kanpo gelditu eta gero; eta Kendallek ere erronka galanta dauka aurtengoan, bi urtetan ez bait du Bilbotarrekin deus irabazi. Apos-tuak?

■ **Hitzetik hortzera:** Hor darrai Joxerra Gartzia igandero, 14,25etan, bertsolaritzaren mundua sakonki aztertuz. Badago zeresanik gainera egun hauetan, pilpilean bait dago aurtengo Bertsolari Txapelketa. Hor arituko dira lehia gogorrean Sebastian Lizaso, Lopategi, Jon Sarasua, Xabier Euskitze...

bideoak



Albaniaren konkista

Alfonso Ungriak zuzendua, X. Elorriaga eta Klara Badiolarekin.

XIV. mendearen bigarren erdian, Karlos II "Gaiztoa", Nafarroako Erregek konpainia bat bidali zuen Mediterraneoaren bestaldera, bere anaia Luisi Albaniaren konkistan laguntzeko. Beta nahiz VHSn. 2.000 pta.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Ezetz asmatu

Zein urtetan jaio zen "Euskadi" literatur saria jaso berri duen Bernardo Atxaga?

- a) 1964
- b) 1949
- d) 1889
- e) 1938

Bertako hitz ahaztuak

Hitz bat asmatu behar duzu, Arrasaten bertan jasotako hitz bat (halaxe dio Azkue-ren hiztegiak). Hitz horren esanahia "astindu" edo "zartako" rekin pareka genezake, eta berau osatzeko falta zaizkizun hizkiak **EZ** dituzu zurrumbilo honetan aurkituko.

K	N	D	M	G	P	D	G	R
G	P	R	F	U	K	F	T	V
M	Y	X	J	S	N	R	S	N
Z	U	T	Z	Y	G	Z	X	K

_ _ _ I _ _ _ I _ _ _

Soluzioa, 21. orr.

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Gogorra izan arren, dagoeneko ezin duzu ezer egin konpontzeko. Oraingo honetan irudimena erabili beharko duzu alde positiboa ikusteko, baina gainditzeko gai zara eta laguntzarik ez zaizu faltako.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Gaixorik sentitzen bazara ez bota errua inori, ez da inoren errua eta dena den, orain arte bezala zaintzen baduzu zure porputz serrano hori, primeran ibiliko zara.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Bidaia horretara bakarrik joateak asko irakatsi dizu, baina ez hartu ohituratzat, esperientzia berriak konpartitu egin beharko dituzu edo behintzat kontatu.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Bapatean zorte ona zure zeinuan jarriko da denbora luzean bertan jarraitzeko. Dena den, ez galdu denbora eta burutik pasatzen zaizkizun proiektu guztiei ekin.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Bada garaia ausart zaitezten lehenengo pausua ematera. Arriskua degoela ukacizina da baina onartzea beharrezkoa duzu. Ez bazara saiatzen, inoiz ez duzu jakingo. Aurrera ba!!



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Ustekabean harrapatu zaitu lagun horren proposamenak eta, nahiz eta haren asmoak oso garbi ikusi ez, asko poztu ere. Gogorik baduzu, aurrera. Astroek abentura zoragarriak prestatu dizkizute.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Besteek baztertzen zaituztela uste duzu, honek deprimitzen zaituelarik. Hobe zenuke errealitateaz jabetzea eta eruduna zu zeu zarela onartu. Ez duzu uste zirikatzailetan handiena zarela?



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Besteek baino gehiago dakizula uste duzu eta horrek besteengandik bereiztu egiten zaitu. Harrotasun horrekin ez zoaz inora, saia zaitez apalagoa izaten.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Esperientzia berriak biziko dituzu lanean, oso egoera onean zaude duzun ahalmen hori besteei adierazteko. Ez lotsatu, pozik eta harrituta geratuko dira.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Gehiegi pentsatzen duzu iraganean, eta depresio batean sartzeko zorian zaude. Ez da hainbesterako, egunean bizi, eta biharko egunean atzera begiratzen baduzu, behintzat pozerako izan dadila.




AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Bazterturik eta ia ahaztuta zenuen lan hori bukatzera behartuta sentituko zara, hankak umore txarrez jarriko zaituztelarik. Ez egin negar eta ikasi nagikeriaren ondorioetatik.




PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Itota zabilza duzun lanarekin, eta asteburuak lasai egon beharrean, astean zehar baino nekatuago bukatzen duzu. Horrela jarraituz gero erre egin zara, aldatu egin beharko zenituzke ohitura txarrak, bestela...



Kiñu

Bergara. Agerreko garaixea



FAGOR

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43